

ERASMUS+ KA1 MUGIKORTASUNAK

IRAKASLEAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

BARAKALDO LHk Erasmus+ programan parte hartzeko aukera ematen die irakasleei, 5 egunez, Europako herrialde batean.

Mugikortasunak egiteko beken kopurua aldatu egiten da ikasturtearen arabera; hala, Erasmus+ programan parte hartzeko hautagaien kopurua eskainitako mugikortasunena baino handiagoa denean, **lehentasun** hauek aplikatuko dira:

1. Lehendik dauden proiektuetan parte hartzeko erabilitako mugikortasunak.
2. *Job shadowing* edo formakuntza-esperientzietan parte hartzeko erabiltzen diren mugikortasunak.
3. Europako zentro batean irakasteko erabiltzen diren mugikortasunak.

Horrez gain, honako **hautaketa-irizpide** hauek hartuko dira kontuan:

- Mugikortasun-proposamena ikastetxeko ardatz estrategikoekin lerrokatzea.
- Hautagaiaren hizkuntza-maila.
- Egonkortasuna ikastetxean.
- Aurreko deialdietan parte hartu izana.

Hartutako konpromisoak:

- Hautagaiak bere mugikortasuna osorik kudeatzeko konpromisoa hartzen du, SEPIEren, Eusko Jaurlaritzaren eta ikastetxearen jarraibideei jarraituz (destinoa bilatzea, ostatua, programa idaztea / *learning agreement*).
- Hautagaiak konpromisoa hartzen du zentroko Nazioartekotze Alorrak eskatutako informazioa eta dokumentazioa garaiz eta behar bezala emateko.
- Hautagaiak konpromisoa hartzen du bere alorreko langileekin – eta hala eskatzen duen beste edozein pertsonarekin – mugikortasunaren esperientzia eta ikaskuntza partekatzeko, multimedia-aurrezpen baten bidez.